

KRISTAU ESKOLAK GREBA BUKAREAKO AKORDIO BEREHALA APLIKATZEA BLOKEATU DU, ETA UKO EGIN DIO SOLDATA-TAULAK EGUNERATZEARI DIRU PUBLIKO GEHIAGO JASO ARTE

KEk uko egin dio otsailaren 5ean sinatu zuen greba-amaierako akordioa aplikatzeari.

KEk aurreko bilera aldebakarrez bertan behera utzi zuen, eta gaur, apirilaren 26an, Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Negoziazio Mahaian akats larria egin du berriro ere. Arduragabekeriak jokatu du soldata-taulak eguneratzeari uko egin baitio. Gainera, hitzarmen-proposamenean ez du txertatu 25-26 ikasturtetik aurrerako eskola-ordu murrizketa, ezta birkokapenari buruzko adostasun berriak.

Soldatak finantzaketarekin lotu nahi ditu berriro, akordioa bete-betan urratuz eta bere aplikazioa blokeatuz. Akordio bat sinatu genuen, eta berriro ere urruntzen gaituzten oztopoak erdigunean jarri dituzte, sinatutako akordioko edukiak sendotu eta aplikatzen hasi beharrean. Patronalek joko-arauak goitik behera aldatu nahi dituzte eta hori ez dugu inolaz ere onartuko.

Gaurko Negoziazio Mahaia ezin izan dugu aurrera egin patronalen blokeoa dela eta. Data bat itxi dugu hurrengo bilerarako, maiatzaren 8rako. Bilera horri begira, STEILASEk eta gainontzeko sindikatuek konpromisoa exijitu diegu patronalei akordioan sinatutako funtsezko 3 puntu inguruan:

- 1.- Soldata-taula aurkeztea, sinatutako ehunekoekin, edozein kanpoko faktoreri lotu gabe eta aplikazio-data zehatzarekin.
- 2.- Hitzarmen-proposamenean 25-26 ikasturtetik aurrerako eskola-ordu murrizketa txertatzea.
- 3.- Birkokatze-araudian greba-amaierako akordioan sinatutakoa aplikatzea.

Aurrera begira, STEILASEk ezin du momentu honetan baztertu edozein ekintza patronalek langileei hainbeste esfortzu kostatu zitzaien akordioa ez aplikatzen tematuta jarraitzen badute.

STEILASEtik batasun sindikalaren garrantzia ere azpimarratu nahi du patronalen arduragabkeriei eta blokeoari erantzuterakoan.

Jakinaren gainean izango zaituztegu.

www.steilas.eus

KRISTAU ESKOLA BLOQUEA LA APLICACIÓN INMEDIATA DEL ACUERDO DE FIN DE HUELGA NEGÁNDOSE A ACTUALIZAR LAS TABLAS SALARIALES HASTA NO RECIBIR MÁS DINERO PÚBLICO

KE se niega a aplicar el Acuerdo fin de huelga que firmó el 5 de febrero.

Después de haber suspendido unilateralmente la anterior reunión, hoy 26 de abril, en la Mesa de Negociación de Centros de Iniciativa Social, KE ha vuelto a cometer un grave error y ha pecado de irresponsabilidad al negarse a actualizar las tablas salariales. Además no ha introducido en la propuesta de convenio la reducción lectiva a partir del curso 25-26, y tampoco ha insertando los nuevos acuerdos sobre recolocación.

Vuelve a querer vincular salarios a financiación, incumpliendo de lleno el acuerdo y bloqueando "de facto" su aplicación. Firmamos un acuerdo y vuelven a centrarse en las diferencias que nos separan, en vez de centrarse en aplicar los acuerdos a los que llegamos. Las patronales quieren cambiar las reglas de juego y es algo que no vamos a consentir.

En la Mesa de Negociación de hoy no hemos podido avanzar debido a este bloqueo de las patronales. Hemos cerrado una fecha para la próxima reunión, el 8 de mayo. De cara a esta reunión, STEILAS y los demás sindicatos hemos exigido a las patronales un compromiso sobre 3 puntos claves firmados en el acuerdo:

- 1.- Presentar unas tablas salariales con los % firmados, sin unirlos a factores externos y con fecha concreta de aplicación.
- 2.- Insertar en su propuesta de Convenio la reducción lectiva a partir del curso 25-26
- 3.- Aplicar en el Reglamento de recolocación lo firmado al respecto en el acuerdo de fin de hulega.

STEILAS valorará la situación sin descartar ninguna vía en el caso de que las patronales sigan enrocadas en no querer cumplir el acuerdo que tanto esfuerzo costó a las y los trabajadores del sector.

STEILAS quiere subrayar la importancia de la unidad sindical a la hora de dar una respuesta a la actitud irresponsable y de bloqueo de las patronales.

Os mantendremos puntualmente informadas e informados.

www.steilas.eus